


VI



COMPOSTELA

nazioarteko VI. Saria,
album irudidunak egitekoa

**Santiago de Compostelako Udalaren Hezkuntza
Departamentuak, Irakurzaletasuna sustatzeko XIII.
Kanpainaren barrenean eta Kalandraka
argitaletxearekin batean, album irudidunak egiteko
"COMPOSTELA" nazioarteko VI. Sarirako deia egiten du.
Hauek dira deialdiaren oinarriak:**

1. Album irudidunen kategorian sar daitezkeen obrak aurkezten ahal dira album irudidunak egiteko "COMPOSTELA" nazioarteko VI. Sarira, hau da, irudien eta testuaren bidez egiten diren kontakizunak, testuak eta irudiak elkarren osagarria baitira.

2. Obrak Iberiar Penintsulako hizkuntzetako edozeinetan aurkezten ahal dira, eta jatorrizkoak eta behin ere argitaratu gabeak izan behar dute nahitaez. Ez da obra onartuko baldin eta beste obra originalen baten egokitzapena bada, edo beste lehiaketaren batean saria edo aipamen berezia eman bazaio.

3. Testuaren eta irudien egileak bat edo gehiago izan daitezke, eta edozein nazionalitatetakoak. Kalandraka argitaletxeko langileak, ordea, ezin dira aurkeztu.

4. Proiektuak edozein tamaina, teknika edo formatu izan dezake, baina ez da izanen barneko 40 orritik gorakoa, hau da, 40 orrialde izanen ditu gehienez babes-orriak eta azalak kontatu gabe.

5. Lehiaketara aurkezten diren egileek honakoa aurkeztu beharko dute:

- Testuaren bost kopia.
- Hiru irudi jatorrizko, eta haietako bakoitzaren koloretako bost fotokopia. Teknika digitala erabili bada, lanaren bereizmen handiko inprimatzeak onartuko dira.
- Aurkezten den proiektuaren maketa bat burutua.

6. Obretan ez da egile(ar)en izenik agertuko. Bai, ordea, goiburu bat edo izengoiti bat. Parte-hartzaileen datu pertsonalak gutun-azal itxi batean adieraziko dira. Gutun-azalean, nahitaez, hauxe jarri behar da: kanpoaldean, obraren izenburua edo izengoitia; eta, barnealdean, egile(ar)en izen osoa, posta-helbidea, harremanetarako telefonoa, eta helbide elektronikoa. Gutun-azalaren barrenean, bestetik, NANaren edo pasaportearen fotokopia bat sartu behar da, baita liburuaren iruzkin edo aipamen bat ere.

7. Lanak Santiago de Compostelako Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, edo hara bidali (Salvador Allende lehendakariaren kalea, 4, 15705 Santiago de Compostela. A Coruña, Espainia). Gutun-azalean hauxe jarriko da hitzez hitz: «Album irudidunak egiteko COMPOSTELA nazioarteko VI. Saria». Garraio-agentzien bidez aurkezten diren gutun-azaletan ez dira sekula agertuko egileen izenak.

8. Lan originalak aurkezteko epea oinarri hauek iragartzen diren egunean irekiko da, eta 2013ko martxoaren 1an itxi. Postetxeko zigilua ez daiteke izan lanak aurkezteko azken eguna baino geroagokoa. Epaimahaiaren erabakia 2013ko apirilaren



**CONCELLO DE
SANTIAGO**
Departamento de Educación

Concello de Santiago de Compostela
Hezkuntza Departamentua
Santiago de Compostelako Udala
Hezkuntza Departamentua
Praza do Obradoiro, 1
Santiago de Compostela
A Coruña - Espainia
dptoeducacion@santiagodecompostela.org
www.santiagodecompostela.org
Tfno: +34 981 554 400
Fax: +34 981 571 511

kalandraka

Italia kalea, 37 – 10. bulegoa
36162 Pontevedra - Espainia
editora@kalandraka.com
www.kalandraka.com
Tel.: +34 986 86 02 76
Faxa: +34 986 10 02 80